

# GURASOAK IRAKASLEEN NORABIDE BEREAN

GURASOEKIN EGITEN DIREN BILERETAN  
EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERARI  
BURUZ HITZ EGITEKO PROPOSAMENAK



ebete hizkuntza-zerbitzuak  
2017-2018 ikasturtea  
[www.ebete.eus](http://www.ebete.eus)

## ***Gurasoak irakasleen norabide berean. 2017-2018 ikasturtea.***

*Ikastetxeetan irakasleek gurasoekin egiten dituzten bileretan, hizkuntzen-eta bereziki euskararen- ezagutza eta erabilerari buruzko mezuak ematen dira.*

*Ondorengo orrietan bilera horiei begira proposatzen ditugun hainbat mezu aurkezten dizkizuegu. Esku-orri moduan erabili ahal izateko landu dira, baina noski, hori ere aukerakoa da.*

*Euskararen ezagutza eta erabilera lantzerantz begira, irakasleentzat oso garrantzitsua da gurasoak norabide berean aritzea. Haur Hezkuntzan hasten direnetik Lehen Hezkuntza amaitzen den arte hainbat bilera egiten dira gurasoekin. Bilera horietan (batzuetan behintzat) gurasoei mezu egokiak ematea eta elkarlanean aritzera gonbidatzea bide eraginkorra izan daiteke.*

*Ondorengo orrietan aurkezten diren proposamenen oinarrian ideia bat dago: gurasoak euskararekiko aktiboak izatea nahi dugu. Baina mezu hori modu eta tresna ezberdinekin lagunduta aurkeztu daiteke adin tartea, urte garaia eta gurasoen hizkuntza-ezaugarriak kontuan hartzen baditugu.*

*Dokumentu hauek 2107-2018 ikasturtera begira eguneratu dira. Ikasturte honetan ebeteko lantaldea osatzen dugun kideen arteko lana izan da: Itziar Larzabal Bengoetxea, Arrate Gisasola Izeta, Lexuri Sanz Ramon eta Iñaki Eizmendi Arsuaga.*

*Proposamen hauek osatu eta garatzen ditugun neurrian, dokumentuak ere eguneratuko ditugu.*

*Kontuan izan badirela bide honetan lagungarriak izan daitezkeen argitalpen eta web guneak ere. Besteak beste:*

- emangiltza.eus webgunea*
- eranafarroa.eus webgunea*
- Hizkuntzen munduan gozatuz argitalpena.*

## Aurkibidea

---

### 1- Ikasturte hasierako bileretarako esku-orriak.

Haur	Bizi euskara.	.....4
Hezkuntzarako esku-orriak	Jolastu euskararekin.	.....8
	Lagunartean euskaraz?	..... 12
	Euskara eta bizipenak.	..... 17
Lehen	Lagunduko diguzue?	..... 21
Hezkuntzarako esku-orriak	Hizkuntzak bere egitea.	..... 25
	Dekalogoia.	..... 30

### 2- Bestelakoak:

Aurre-matrikulazio garairako esku-orria.	.....34
Etorri berriei begirako esku-orria.	.....37
Gabonei begirako esku-orria.	.....41
Udako oporrei begirako esku-orria.	.....44
Eskolako lanekin laguntzeari buruzko esku-orria.	.....49
Gurasoentzako webgune baliagarriak	.....53

### 3- Bileretarako gidoi adibidea. ....55

### 4- Plangintza adibidea. ....57

**Bizi euskara.**

**Etxean ere euskara bizi behar  
dutelako.**

**Bizi euskara.**

**Necesitan vivir el euskera en  
casa.**

**HAUR HEZKUNTZARAKO ESKU-ORRIA**

### ***Bizi euskara.***

Gure ikasleak benetako elebidunak izatera iristea nahi dugu: euskaraz eta gaztelaniaz erraztasunez arituko direnak. Hori ona dela argi daukagu.

Ikastetxetik horri begira lan egingo dugu, baina eskolak mugak ere baditu eta gurasoon laguntza behar dugu.

Seme-alabek euskara aberatsa edukitzea nahi baduzue, etxetik euskara eskaintzea da hoberena.

Eta ez hori bakarrik, seme-alaben hizkuntza ohiturei begira argi izan behar duzue eragin gehien gurasook duzuela. Zuen jokabideak imitazioz ikasiko dituzte zuen seme-alabek. Zer ikusi hura ikasi.

Gurasook seme-alabentzat eredu izan zaitezkete: euskara eskaini eta hizkuntza-portaerak ere eskaini. Horretara gonbidatzen zaituztegu.

Elkarlanean aritzeko prest?

---

### **Bizi euskara, vive el euskera.**

Queremos que nuestros/as alumnos/as sean bilingües: que sean competentes tanto con el euskera como con el castellano.

Desde la escuela trabajaremos en esa dirección, pero la escuela tiene límites y necesitamos la ayuda de padres y madres.

Si queréis que vuestros hijos e hijas tengan facilidad para utilizar los dos idiomas, necesitan ver y utilizar euskera fuera de la escuela. Es importante que desde casa también les ofrezcáis euskera.

¿Dispuestos a colaborar?

## Gurasoen ohiko kezka / Dudas habituales de padres y madres

### ***Euskaraz ondo ez badakit, erabili behar al nuke beraiekin?***

*Komunikaziorako oztopo ez den bitartean, nahi adina euskara erabili dezakezue. Ez eduki beldurrik dakizuen euskara erabiltzeari. Abiapuntu moduan komunikazioa hartu, zuen seme-alabekin ondo komunikatzea da garrantzitsua.*

*Erabiltzen dugun euskara erabat zuzena izatea ez da garrantzitsua. Garrantzitsuagoa da euskararekiko harreman on bat transmititzea, eta hori egiteko modu bat eguneroko harremanetan gure seme-alabek euskara entzutea ere bada.*

*Seme-alabek hizkuntza batekin identifikatuko gaituzte. Gaztelaniarekin identifikatzen bagaituzte (komunikazio hizkuntza nagusia gure kasuan hori delako), baina euskara hainbat egoeretan erabiltzeko gai baldin banaiz, hauxe gure proposamena: aukeratu egoera edo denbora tarte zehatz batzuk (meriendaren ordua, erosketak egiteko tarte...) eta horietan beti euskaraz egin. Gu gaztelaniarekin identifikatu arren egoera horiek euskararekin identifikatu ditzatela eta egoera horietan gu euskaraz entzutera ohitu daitezela.*

---

### ***Sé un poco de euskera, ¿debería utilizarlo con mis hijos/as?***

*Es importante que los niños escuchen y utilicen euskera fuera de la escuela. Si los padres y madres sabéis un poco de euskera está muy bien que lo utilizéis. Vuestros hijos e hijas verán que os interesáis por el euskera, que también es algo vuestro.*

*Utilizad todo el euskera que queráis mientras no obstaculice la comunicación. En el momento que se convierte en un obstáculo es mejor utilizar el idioma que domináis bien.*

*Tener en cuenta que no es tan importante que el euskera que utilizéis sea totalmente correcto, pero es mejor aprender frases y/o conversaciones enteras que utilizar palabras sueltas.*

***Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres***

**Euskara pixka bat baldin badakizu / Si sabéis un poco de euskera**

Os recomendamos que busquéis frases o tipos de conversaciones que siempre sean en euskera. Es mejor buscar situaciones que siempre utilizaremos algunas frases en euskera que utilizar el euskera que sabemos de vez en cuando.

De este modo podemos conseguir dos cosas:

- Acostumbrarnos a utilizar el euskera en esas situaciones, que sea algo natural.
- Ir sumando conversaciones o frases en euskera. Si conseguimos que en algunas situaciones nos acostumbremos y nos sentimos cómodos, es más fácil buscar y añadir otras situaciones.

Por ejemplo:

- Por la mañana: Egun on! Zer moduz lo egin duzu? Goxo goxo zaude? Goazen gosaltzera. Hortzak garbitu dituzu? Zer jantziko duzu gaur? Mugitu, autobusa galduko dugu.
- Por la tarde: Zer moduz ikastetxean? Ondo pasa duzu? Gaur meriendatzeko... Parkera joango gara? Nekatuta zaude? Goazen jolastera!

***Euskara ez baldin badakizu / Si no sabes euskera***

Utilizar expresiones en euskera es una manera de transmitir a nuestros hijos e hijas actitudes positivas y una buena relación hacia el idioma. Te ofrecemos una lista de expresiones. Nuestra propuesta: elige dos o tres y empieza a utilizarlas. En la medida que te sientas cómodo y los vayas utilizando de una manera natural, empieza a utilizar otras dos o tres. De ese modo, que puede ser incluso muy divertido, puedes utilizar cada vez más expresiones en euskera. ¡Y podemos ofrecerte muchos más!

<b>Egun on!</b>	¡Buenos días!	<b>Gustatzen zaizu?</b>	¿Te gusta?
<b>Bat, bi, hiru, lau, bost...</b>	Uno, dos, tres, cuatro, cinco...	<b>Goazen jolastera!</b>	¡Vamos a jugar!
<b>Muxu bat?</b>	¿Un beso?	<b>Ondo pasa duzu?</b>	¿Lo has pasado bien?
<b>Bai goxoa!</b>	¡Qué rico!	<b>Marrazki bat egingo dugu?</b>	¿Pintamos un dibujo?
<b>Esan agur!</b>	¡Diles adiós!	<b>Goazen ohera</b>	Vamos a la cama

**Jolastu euskararekin**  
**Eskaini euskara aberatsa etxetik**

**Juega con el euskera**  
**Ofrécele euskera desde casa**

**HAUR HEZKUNTZARAKO ESKU-ORRIA**



## **Jolastu euskararekin.**

Etxean euskararekin jolastea, atsegina eta dibertigarria izateaz gain, seme-alabentzat lagungarria ere bada: euskara aberatsa eskaintzen ari gara eta euskararekin bizipen positiboak ere eskaintzen ari gara.

Txikiak direnetik jolastu dezakegu hizkuntzekin, eta euskararekin jolastea benetan garrantzitsua da seme-alabek etorkizunean euskara erabiltzea nahi badugu.

Modu askotara jolastu daiteke hizkuntzekin. Esku-orri honetan bi proposamen egiten dizkizuegu horri begira.

Zer iruditzen zaizkizu? Jolasteko prest?

---

## **Juega con el euskera.**

Es muy importante que nuestros hijos e hijas tengan una buena relación con los idiomas que queremos que aprendan.

Si desde casa transmitimos castellano, la relación con ese idioma será grande y positiva.

Pero desde casa podemos ofrecerles también una buena relación hacia el euskera aunque nosotros no conozcamos ese idioma.

Esa relación la podemos trabajar de varias maneras. En este díptico os hacemos una propuesta simple que además puede ser divertida.

¿Qué os parece? ¿Dispuestos a jugar?

## Gurasoen ohiko kezka / Dudas habituales de padres y madres

### ***Nik euskaraz dakit baina nire bikotekideak ez. Nola egin behar genuke seme-alabekin etxean?***

*Bakoitzak berean egin dezala. Euskaraz dakienak euskaraz eta ez dakienak gaztelaniaz edo ondo dakien hizkuntzan.*

*Etxe berean bi-hiru hizkuntza elkarrekin bizi daitezke arazorik gabe. Gainera, gaur egun normala da hori.*

*Hurrek pertsonak eta egoerak hizkuntzekin identifikatuko dituzte eta hizkuntza batetik bestera pasako dira modu natural batean.*

*Beraz, ez izan zalantzarik, eta euskaraz baldin badakizu erabili lasai eta gustura euskara seme-alabekin. Modu horretan, euskara aberats bat izateko abiapuntua oso ona izango da zuen seme-alabentzat.*

---

### ***Mi hijo/a no quiere que le hable en euskera. ¿Por qué? ¿Debo insistir?***

*Identificamos a las persona y las situaciones con los idiomas.*

*Si nosotros sabemos un poco (o bastante) euskera, pero el idioma de comunicación con nuestros hijos/as es sobre todo el castellano, suele ser bastante habitual que algunos niños/as no se sientan cómodos cuando su madre/padre a veces empieza a hablarles en euskera.*

*Su reacción es comprensible pero por otro lado nos interesa ofrecerles todo el euskera que podamos desde casa.*

*Para superar esta situación podemos tener dos ideas en cuentas:*

- *Transmitidles que también queremos utilizar euskera. Que aunque tengamos limitaciones también es nuestro idioma.*
- *Buscad situaciones o tipos de conversaciones donde siempre utilicemos euskera: A la hora de despertarlos o antes de acostarlos, cuando les preguntamos por temas de la escuela... Cada uno, según sus posibilidades o limitaciones, puede buscar unas situaciones u otras. De este modo podemos conseguir que en esas situaciones nos identifiquen con el euskera.*

## Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres

### Euskararekin jolasteko esamoldeak

Hizkuntzarekin jolasteko hainbat bide daude. Hemen bi bide proposamen:

#### Sinonimoak

Gauzak beti modu berean esan beharrean, hiru-lau modutara esatea. Eta batzuetan jarraian. Jolastu hauekin, gustuko badituzu beste hainbat ere erabili:

Poza adierazteko	<i>Alai, pozik, gustura, ondo, kontentu...</i>
Ondo egin duela esateko	<i>Bikain, primeran, oso ondo, ederki, mundial...</i>
Harridura adierazteko	<i>Harrituta, txundituta, aho zabalik, miretsita...</i>
Nekea adierazteko	<i>Nekatuta, nekaporratuta, porru eginda, leher eginda, jota, lur jota</i>
Gosea adierazteko	<i>Gosetuta, tripa zorriekin, sabelzorriekin, apetituarekin...</i>

#### Tonuarekin jolastea

Abesti bera modu ezberdinetara kantatu dezakegu: haserre, barrez, negarrez, mantso, azkar, tonu oso baxuan, garrasika... Froga ezazue abesti honekin eta gustatzen bazaizue beste abesti batzuekin ere erabili:

*Arri koskor batekin, hor dabil Martin-tin-tin  
jotzen ditu kax-kax-kax, bata bestearekin  
bata bestearekin, jotzen ditu kax-kax-kax  
arri koskor batekin, hor dabil Martin-tin-tin*

### Expresiones en euskera

Utilizar cada vez más expresiones en euskera es una manera de transmitir a nuestros hijos e hijas actitudes positivas y una buena relación hacia el idioma. Os proponemos algunas expresiones y os animamos a empezar a utilizar algunas de ellas.

<i>Egun on!</i>	<i>¡Buenos días!</i>	<i>Etorri hona!</i>	<i>¡Ven aquí!</i>
<i>Gero arte</i>	<i>Hasta luego</i>	<i>Egon geldi!</i>	<i>¡Estate quieto!</i>
<i>Ondo pasa!</i>	<i>¡Pásalo bien!</i>	<i>Ura nahi duzu?</i>	<i>¿Quieres agua?</i>
<i>Zer moduz zaude?</i>	<i>¿Qué tal estás?</i>	<i>Jantzi berokia</i>	<i>Ponte la chaqueta</i>
<i>Goxoa dago?</i>	<i>¿Está rico?</i>	<i>Goazen etxera</i>	<i>Vamos a casa</i>
<i>Pixka bat gehiago?</i>	<i>¿Un poco más?</i>	<i>Goazen parkera</i>	<i>Vamos al parque</i>
<i>Amatxo/aitatxo dator!</i>	<i>¡Viene mamá/papá!</i>	<i>Nekatuta zaude?</i>	<i>¿Estás cansado/a?</i>

## **Lagunartean euskaraz?**

**Zein hizkuntza aukeratuko dute  
lagunartean?**

## **¿Euskera entre amigos/as?**

**¿Qué idioma elegirán para utilizarlo  
entre amigos/as?**

**HAUR HEZKUNTZARAKO ESKU-ORRIA**

## **Euskararekin harreman handia izatearen garrantzia**

Gure seme-alabek euskararekin harreman handia eta positiboa behar dute.

Etiket euskara eskaintzen diozuen gurasoen kasuan, harreman hori neurri handi batean ziurtatzen diozue: etiketik eta ikastetxeetik bizipen asko izango baititu euskaraz.

Gaztelaniarekin, bestalde, harreman handia ziurtatua dute: inguruneak etengabe eskaintzen die, komunikabideetatik asko jasoko dute, eta abar.

Etiket eta eskolatik kanpo euskara erabiltzeko eta euskaraz bizipenak izateko aukera eman behar diegu. Batez ere gurasoak eta irakasleak ez diren erreferenteak izan ditzaten.

---

## **La importancia de tener una buena relación con el euskera**

Es muy importante que nuestros hijos/as tengan mucha y muy buena relación con el euskera. Si desde casa transmitimos castellano, la relación con ese idioma será muy buena y probablemente tendrá más facilidad y recursos.

Nos interesa fomentar el uso del euskera y ofrecerles una relación intensa y positiva con el idioma. De ese modo, llegarán a dominar bien los dos idiomas y podrán elegir utilizar uno u otro.

Llegar a tener un buen nivel en las dos lenguas, y ser capaces de utilizar uno u otro en diferentes situaciones o relaciones, será una gran ventaja para ellos/as.

## Gurasoen ohiko kezkak / Dudas habituales de padres y madres

### ***Euskaraz ikasten ari dira, baina askotan gaztelaniaz aritzen dira beraien artean. Zergatik?***

*Arrazoi praktikoan arabera aukeratzen dituzte hurrek hizkuntzak. Hau da: Zein hizkuntzatan egiten dugu errazago jolastera bildu garen gehienok?*

*Txikiak direnen erraztasun gehien etxeko hizkuntzan izango dute, ez ikastetxeko hizkuntzan. Beraz, lagunartean jolasean dabiltzanean, nahiko normaltzat hartu dezakegu gaztelaniarako joera hori: beraien inguruan dabiltzan askok erraztasun gehiago baitute gaztelaniarekin.*

*Zein izan daiteke egoera horren aurrean hartu dezakegun jokabide egokia?*

*- Zer ez egin? Ez egin errietary. Gaztelaniaz egiteagatik ez egin errieta, ez kargu hartu. Esan bezala, gehienetan nahiko logikoa izango da jokabide hori.*

*- Zer egin? Euskaraz gehiago egin dezaten lagundu. Guk nahi dugunez hizkuntza-ohitura batzuk izan ditzaten, guk lagundu beharko diegu.*

### ***Estudian en euskera pero entre ellos/as hablan en castellano, ¿por qué?***

*Los/las niños/as eligen el idioma por razones prácticas. En un grupo tenderán a hablar en el idioma que domine la mayoría, en el idioma donde más recursos tenga la mayoría.*

*Normalmente tendrán más facilidad y recursos en la lengua de casa. Tened muy claro que el idioma de casa tiene más influencia en los hábitos lingüísticos que el idioma de la escuela.*

*Nos interesa mucho que entre los amigos utilicen euskera: si queremos que lleguen a dominar bien las dos lenguas debemos fomentar el uso del euskera (el uso del castellano lo tenemos garantizado), y si conseguimos que entre los amigos utilicen euskera habremos dado un paso muy importante en esa dirección.*

*¿Cómo les podemos ayudar a que utilicen más euskera?*

*- ¿Qué no hacer? No les riñáis si utilizan castellano en situaciones donde quisiéramos que hablaran en euskera. Es lógico y no es negativo.*

*- ¿Qué hacer? Ayudadles a utilizar más euskera.*

*Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres*

**5 ideia euskera gehiago erabiltzen laguntzeko**

**Gurasoen artean eredu izaten ahalegindu.:** Euskaraz dakiten gurasoekin euskaraz egiten dugu? Horrela bada, eredu gara. Horrela ez bada, proposamen bat: hitz egin guraso horiekin, eta hizkuntza-ohitura aldatzea proposatu baina urrats txikiak emanaz. Adb: parkean topatzen garen bakoitzean euskaraz egiten hasi...

**Jolastu beraiekin:** Haurrak lagunartean jolasten ari direnean tartean sartu eta beraiekin jolasten baduzue euskaraz aritzeko ohiturak finkatzen lagundu dezakezue, elkarrizketak euskarara bideratu ditzakezue...

**Ez egin errieta:** Gaztelaniaz hitz egitea ez da txarra, beraien hizkuntza ere bada. Ikusi dezatela euskaraz egitea nahi duzuela eta errefortzu positiboak ematen dizkiezuela euskaraz ari direnean: animoak, zorionak...

**Helburu txikiak adostu:** Lortu ahal izango dituzte eta zuek lagundu ahal izango diezue. Adibidez: *Jolas hau egingo dugu, baina egiten dugun bitartean denok euskaraz egin behar dugu. Ados?* Gu bertan egotean elkarrizketak euskarara bideratzeko, helburuak lortu eta errefortzu positiboak emango dizkiegu: *Oso pozik nago, bihar beste jolas bat!, Banekien nik lortuko zenutela!...*

**Eskola orduz kanpoko jarduerak:** Benetan da garrantzitsua eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz eskaintzea. Euskaraz aritzeko guneak eskaintzen dizkiegu, gune *babestuak*.

## Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres

### 6 ideas para ayudarles a utilizar más euskera

**Ofrecedles actividades extraescolares en euskera:** si van a participar en actividades extraescolares, intentad elegir las en euskera.

**Utilizad juegos en euskera:** aprender algunas canciones y frases de juegos en euskera, para poder utilizarlos con ellos.

**Utilizad frases de la vida cotidiana en euskera,** también cuando están con los amigos. Por ejemplo: *¿A qué estáis jugando?–¿Zertara ari zarete jolasten?, ¿Que habéis hecho hoy?–¿Zer egin duzue gaur?...*

Pedid a padres y madres que saben euskera **que les hablen a nuestros hijos e hijas en euskera.**

**Dardes refuerzos positivos** cuando vemos que utilizan euskera, que vean que nos interesa, nos parece adecuado y nos alegramos.

**No reñirles** si utilizan castellano en situaciones donde nos gustaría que utilizaran euskera. El castellano también es su idioma. *¿Por qué no lo van a utilizar? Otra cosa es que se den cuenta que nosotros potenciamos que usen euskera, y lo relacionen con refuerzos positivos.*



**Hizkuntzak eta bizipenak**  
Eskaini bizipen asko eta  
indartsuak euskaraz

**Idiomas y vivencias**  
Ofrecerles vivencias positivas en  
euskera

**HAUR HEZKUNTZARAKO ESKU-ORRIA**

## Hizkuntzak eta bizipenak

Hizkuntzekin dugun harremanak erabat baldintzatuko dugu hizkuntza bakoitzarekin nola jokatuko dugun: norekin erabili, nola, noiz...

Gure seme-alabak benetako elebidunak izatea nahi badugu, eta, are gehiago, eleaniztasunarekiko jarrera egokiak landu nahi baditugu, ikastea nahi genukeen hizkuntza bakoitzarekin harreman handia behar dute.

Gaztelaniarekin harreman handia izango dute. Kanean gehien entzuten duten hizkuntza da, telebistan gehien ikusten dutena, erreferente asko ditu (musika, kirola...), eta abar. Hizkuntza horrekin harreman handia ziurtatua dute.

Baina euskararekin? Seme-alaba txikiak dituzuenek, orain da hizkuntzarekin harremana zaintzen hasteko garaia. Telebista euskaraz ere ikus dezatela, ipuinak euskaraz ere entzun ditzatela, ezagutu ditzatela erreferente kulturalak (pailazoak, musika...). Hori adinean aurrera egin ahala ere zaindu beharko genuke. Horretaz gain, ikusi eta entzun dezatela euskara etxetik kanpo: guraso euskaldunon artean euskaraz eginaz, euskarazko harremanak ere bilatuz, eta abar.

---

## Idiomas y vivencias

La relación que tenemos con los idiomas condicionan el uso y las actitudes: con quién utilizarlo, cuándo, cómo... Si queremos que nuestros hijos/as sean realmente bilingües, que puedan utilizar con facilidad y fluidez las dos lenguas, y además, que tengan actitudes positivas hacia el plurilingüismo, deberíamos ofrecerles una buena relación con los idiomas.

La relación con el castellano será positiva. Es la lengua de casa de la mayoría, es el que más escuchan en la calle, les ofrece muchos referentes (culturales, deportivos...), etc. En ese idioma las vivencias serán muchas.

¿Y con el euskera? Ahora que vuestros hijos e hijas son pequeños es el momento de empezar a ofrecerles una buena relación con el euskera. Que también vean la tele en euskera, que escuchen música en euskera, que tengan referentes culturales, y, en la medida que podamos, que también vean y escuchen euskera fuera de la escuela.

## Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres

### Euskararekiko bizipenak eskaintzen

#### 4-5 urtekoei begira:

- Eskolatik kanpo euskarazko harremanak behar dituzte. Guraso euskaldunen kasuan, euskaldunak diren beste gurasoekin harremanak euskaraz izatea komeni zaizue. Edo etxetik kanpo euskarazko harremanak ere izaten ahalegindu beharko zenukete.
- Erreferente kulturalak eta euskarazko produktuak eskaini: musika, antzerkia, pailazoak, telebista, jostailuak... Zaindu arlo guzti horietan euskarak bere lekua izango duela.

#### 6-8 urtekoei begira:

- Eskola orduz kanpoko jarduerak. Seme-alabek euskarazko bizipenak izatera begira eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz izatea benetan da garrantzitsua.
- Erreferente kulturalak eta euskarazko produktuak eskaintzen jarraitu.

#### 9-12 urtekoei begira:

- Eskola orduz kanpoko jarduerak. Hizkuntza harremanak asko finkatzen dira adin tarte honetan, bereziki zaindu behar genituzke eskola orduz kanpoko jarduerak. Proposamen bat: Bertsolaritzarekiko zaletasuna sustatzea. Hizkuntzarekin jolastea da eta harreman sare oso euskaldunak sortzen dira horren inguruan. Erreferente erakargarriak ere eskaintzen ditu.
- Udalekuak: euskarazko bizipenak izatera begira, etxetik kanpoko egonaldiak benetan dira aproposak.
- Erreferente kulturalak: musikaren arloan euskarazkoak ere eskaini, antzerkiak...

#### 12 urtetik gorakoei begira:

- Harreman sareetan gure eragina askoz txikiagoa izango da, baina zaindu erreferente kulturalak (musika bereziki) eta interneten edo beste esparru batzuetan ere erreferenteak edukitzea.

## **Ofrecedles vivencias en euskera**

### **Cuando tienen 4–5 años:**

- Utilizad el euskera que podáis. Que también escuchen euskera en casa. Si podéis ofrecerles algunas relaciones en euskera, mucho mejor: cuidadores, familiares, amigos...
- Ofrecedles referentes culturales y productos también en euskera: música, teatro, payasos, televisión, juguetes... Cuidad que en ese tipo de ámbitos el euskera tenga presencia.

### **De 6 a 8 años:**

- Actividades extraescolares: es muy importante ofrecerles actividades extraescolares en euskera para que tengan vivencias en euskera fuera de la escuela.
- Seguid ofreciéndoles referentes culturales y productos en euskera.

### **De 9 a 12 años:**

- En esta edad se afianza el uso de las lenguas. Cuantas más sean las actividades extraescolares en euskera, mucho mejor.
- Campamentos de verano: de cara a tener experiencias positivas en euskera, las estancias fuera de casa suelen ser vivencias intensas.
- Referentes culturales: música, teatro...

### **A partir de 12 años:**

- Cada vez podremos incidir menos en su relación con las lenguas, pero deberíamos continuar ofreciéndoles por lo menos referentes en euskera: música, libros, revistas, internet, etc.

**Benetako ikasle elebidunak nahi  
ditugu.**

**Lagunduko al diguzue?**

**Queremos que nuestros/as  
alumnos/as sean realmente  
bilingües.**

**¿Nos ayudáis?**

**LEHEN HEZKUNTZARAKO ESKU-ORRIA**

## **Gure ikasleak benetako elebidunak izatea nahi dugu, baita eleanitzak ere.**

Benetako elebidunak izan daitezen, hizkuntza horien erabilerak du garrantzia: transmititu nahi diegun hizkuntza bakoitzean, erabilera nahikoa bada, ezagutza eta motibazioak handiak izango dira.

Ikastetxeak mugak ditu zeregin horretan. Urte osoa hartuta, eskolan orduen %15 inguru ematen du haurrak eta eskolaz kanpo %85. Etxetik euskara eskaintzen badiegu, %50etik gora izango da adin honetan euskararen erabilera, baina hala ere gaztelaniak nahiko indar izango du hizkuntza hori ere ondo ikasteko eta erabiltzeko.

Gizarteko hizkuntza indartsuena gaztelania da gehienon kasuan, eta laguntza behar dute hainbat harreman euskaraz ere izan ditzaten. Ikastetxetik norabide horretan lan egingo dugu, baina zuen laguntza beharrezkoa da.

¿Lagunduko al diguzu?

**Queremos que nuestros alumnos lleguen a un buen nivel de bilingüismo, que sean competentes en las dos lenguas oficiales. Y también que lleguen a ser plurilingües.**

Los niños y niñas aprenden los idiomas de una manera natural. Para lograr un buen nivel, lo principal es que el uso en cada uno de las lenguas que queremos que aprendan sea suficiente.

La escuela intenta ofrecerles sobre todo uso del euskera. Pero los límites de la escuela son muy importantes. La escuela garantiza que la presencia del euskera durante todo el año, será del 15%. ¿Cuánto euskera utilizan fuera de la escuela? ¿Cuál es la presencia y el uso del euskera en 85% del tiempo? ¿No es demasiado grande el desequilibrio?

¿Nos ayudáis?

## *Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres*

### **Eskola orduz kanpoko jardueren garrantzia**

Eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz izatea benetan garrantzitsua da: kirola, antzerkia, musika, aisia... Zuek etxetik euskara eskaini arren, eta ikastetxetik ere nagusiki euskara eskaini arren, inguruko askoren ama hizkuntza eta kaleko giroa nagusiki gaztelaniaz dira. Ondorioz, oso ohikoa izaten da, gero eta gehiago gaztelaniara jotzea.

Hori axola bazaigu, oso kontuan izan behar dugu eskolaz kanpoko jardueren hizkuntza. Jarduera horiek pertsona batek dinamizatzen ditu eta euskararen erabilera ere dinamizatu dezake. Gainera, eskolaz kanpo euskaraz modu natural batean egiteko guneak eskaintzen ariko gara.

Aukera baldin baduzue, euskarazko jarduerak aukeratu. Nahi duzuen jarduera hori euskaraz ez baduzue, eskatu antolatzaileei euskaraz ere eskaintzeko. Eskatzen badugu, poliki poliki bada ere, hasiko dira eskaintzen.

---

### **La importancia de las actividades extraescolares**

Es muy importante por lo menos algunas de las actividades extraescolares sean en euskera: deporte, teatro, música, actividades de tiempo libre... Los niños y niñas eligen las lenguas por motivaciones naturales (eligen la lengua donde más recursos y facilidad tienen la mayoría de ellos). Por ello, es muy posible que nuestros hijos e hijas tiendan a hablar en castellano en las relaciones cotidianas.

Si queremos que lleguen a ser competentes con los dos idiomas les debemos ofrecer ámbitos de uso del euskera fuera de la escuela. En las actividades extraescolares hay una persona que dinamiza la actividad y puede dinamizar el uso de la lengua.

Cuando podáis elegir, os proponemos que elijáis las actividades en euskera. Si no podéis elegir porque la actividad que os interesa no la ofrecen en euskera, pedir a los organizadores que empiecen a ofrecerla también en euskera. Si lo pedimos, poco a poco ofrecerán más actividades en esa lengua.

Fitxa hau bete eta astebeteko epean ikastetxera ekartzea eskertuko genizueke. Os agradeceríamos que rellenaseis esta ficha y la entregaseis en la escuela en los próximos días.

## Eskola orduz kanpoko jarduerak *Actividades extraescolares*

### Zuen seme-alabak zein ekintzatan hartzen du parte eskola orduz kanpo?

¿En qué actividades extraescolares participa vuestro hijo/a?

EKINTZA Actividad	HIZKUNTZA Idioma	NON?* ¿Dónde?*
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____

### Ezagutzen duzue auzoan edo inguruan euskaraz eskaintzen den eskola orduz kanpoko ekintzarik?

¿Conocéis alguna actividad que se ofrezca en euskera en el entorno?

EKINTZA Actividad	NON?* ¿Dónde?*
_____	_____
_____	_____
_____	_____

*\* NON?: antolatzailea, lekua eta harremanetarako bide bat zehaztea eskertuko genizueke (helbide bat, telefono bat...)*

*\*¿Dónde?: os agradeceríamos que concretarais quién lo organiza, el lugar donde se realiza la actividad y algún modo de contacto (dirección, teléfono...).*



**Hizkuntzak gure egitea  
Nolako harremana izatea nahi  
genuke hizkuntzekin?**

**Disfrutando de los idiomas**  
¿Qué relación nos gustaría que  
tuvieran con los idiomas?

**LEHEN HEZKUNTZARAKO ESKU-ORRIA**

## Hizkuntzak gure egitea

Hizkuntzak gure identitatearen parte dira. Ezagutzen ditugun edo eta inguruan ditugun hizkuntzak gure egiten ditugu. Hizkuntza horiekin dugun harremanaren arabera, hizkuntza horiekiko jarrera ezberdina izango da. Beraz, saia gaitezen harreman indartsua eta positiboa eskaintzen, beraien onurarako izango da.

Gure seme-alabek nolako harremana izatea nahiko genuke inguruan dituzten eta ikasten ari diren hizkuntza horiekin? Zer nahiko genuke izatea hizkuntza horietako bakoitza beraientzat?

Hizkuntzekin harreman positiboa eta aberatsa izatea nahi badugu, inguruan dituzten hizkuntza horietan bizipen asko eta positiboak eskaini behar dizkiegu. Eta ez hori bakarrik, hizkuntza horiek guretzat ere garrantzitsuak direla ikusi behar dute hau da, hizkuntza horiek ezagutu edo ez, guk ere harreman handia nahi dugula hizkuntza horiekin.

---

## Disfrutando de los idiomas

Los idiomas forman parte de nuestra identidad. Hacemos nuestros los idiomas que conocemos y/o que tenemos alrededor. Según la relación que tengamos con esas lenguas la actitud hacia ellas será diferente. Por lo tanto, ayudemos a nuestros hijos e hijas a tener una relación positiva e intensa con las lenguas que están aprendiendo.

¿Qué relación nos gustaría que tuviesen nuestros hijos e hijas con los idiomas?  
¿Qué nos gustaría que fuera cada uno de esos idiomas para ellos?

Si queremos que tengan una relación positiva y enriquecedora con los idiomas, deberíamos ofrecerles muchas vivencias y referentes. Además, deberían ver que esos idiomas son importantes para nosotros, que nosotros también buscamos una relación positiva con esos idiomas tanto si los conocemos como si no.

## Gurasoen ohiko kezkak / Dudas habituales de padres y madres

### **Gure seme-alabek euskara aberatsa izango al dute? Eta gaztelania?**

Zuen seme-alabek euskara maila ona izango dute. Baita gaztelania maila ona ere.

Derrigorrezko ikasketak amaitzen dituztenean, euskaraz eta gaztelaniaz ondo adierazteko gai izango dira: ahoz zein idatziz. Ingeleseko oinarri on bat ere izango dute.

Hori bai, hizkuntza maila on batetik hizkuntza aberatsa izatera tarte bat dago.

Hizkuntza aberastasunean eragin gehien gurasoek duzue, ikastetxeak baino handiagoa.

Beraz, zuen seme-alabek hizkuntza aberatsa izate nahi baduzue, saiatu etxetik aberastasun hori eskaintzen edo norabide horretan egokiak diren jarrerak sustatzen.

### **¿El nivel de euskera de nuestros hijos e hijas será bueno? ¿Y el de castellano?**

La escuela tiene objetivos concretos respecto al aprendizaje de las lenguas y la capacidad que deben llegar a adquirir los/las alumnos/as. Por lo tanto, vuestros hijos/as llegarán como mínimo a esos objetivos.

Cuando terminen la enseñanza obligatoria serán capaces de expresarse en euskera y en castellano: tanto oral como escrito. También tendrán una base de inglés.

Pero, una cosa es tener un nivel adecuado en una lengua y otra que tengamos riqueza lingüística. Hay un paso entre no tener dificultades a tener facilidad, registros, soltura...

En esa dirección las familias tenéis más influencia que la escuela.

Por lo tanto, si queréis que el euskera y el castellano de vuestros hijos e hijas sea rico, debéis intentar ofrecer recursos y actitudes desde casa.

## ***Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres***

### **Zaindu etxeko hizkuntza, eskaini euskara aberatsa:**

- Jolastu hizkuntzarekin: hitz egin eta kantatu tonu eta erregistro ezberdinetan, abestiei letrak aldatu...
- Jolastu sinonimoekin, edota definizioak egitera hitz jakin batzuk erabili gabe, mihiluzera jolastu...
- Hitzak asmatu eta horiekin jolastu: Nola esaten da...?
- Euskalkiak ezagutu eta horiekin jolastu.
- Euskaraz lehen gauzak nola esaten eta idazten ziren begiratu, kuriositatea sortu...

### **Eskaini euskararen erabilera:**

- Izan ditzatela erreferente asko eta egokiak: musika, kultura, liburuak, aldizkariak...
- Ekitaldi kulturaletara eraman: antzerkiak, kontzertuak, jaialdiak...
- Eskola orduz kanpoko jarduerak eskaini. Lagundu euskarazko harreman sareak izan ditzaten.
- Euskarazko jostailuak eta jolasak ere eskaini
- Euskararen erabilera handia den inguruneetara joan tarteka behintzat

### **Gaztelaniaren kasuan:**

- Interesa erakutsi. Ikus dezatela nahi dugula gaztelania aberats bat izatea. gaztelania garatzen eta hobetzen ari direla ohartzean hori modu positiboan baloratu, gaztelaniaz ondo idazten badute eta ondo espresatzen badira hori baloratu eta beraiei adierazi, eta abar.
- Erreferenteen kasuan ez duzue ahaleginik egin beharko: gaztelaniaz aritzeko aukera asko dituzte, gaztelaniak erreferente asko eta indartsuak eskaintzen dizkie (musika, kultura, kirola...).

### **Ingelesarekin edota beste hizkuntza batzuekin...**

- Liburutegira joan eta ingelesezko liburuak ere aukeratu. Irakur diezagutela zatiren bat. Ez badugu ulertzen, azaldu diezagutela zer jartzen duen.
- Marrazki bizidunak tartek ingelesez ere ikusi.
- Interesa eta kuriositatea azaldu hizkuntza bat baino gehiago azaltzen diren albisteen edo egoeren inguruan: hizkuntza asko dakizkiten ezagunei buruz hitz egin, albiste bitxiak...
- Beste hizkuntza batzuk hitz egiten diren herrialdeetara joatean, oinarritzko gauza batzuk ikasi, interesa erakutsi...

## ***Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres***

### **El idioma de casa. Nos interesa cuidar y jugar con el idioma de casa:**

- No importa cuál sea la lengua de casa. Para llegar a adquirir un buen nivel en varias lenguas, el punto de partida será la lengua de casa. Es importante cuidarla. Por ejemplo:
- Hablar y cantar en diferentes tonos y registros.
- Jugar con los sinónimos, a definir cosas sin usar palabras concretas...
- Inventar palabras y jugar con ellas. Por ejemplo: ¿Cómo se dice en ....?
- Conocer los dialectos de la lengua
- Fomentar la curiosidad por saber de dónde vienen los términos, qué significaban en origen, como han evolucionado en otras lenguas...

### **Euskera: Importancia de las actividades extraescolares.**

- Que no identifique el euskera sólo con la escuela
- Que tenga muchas experiencias positivas en euskera
- Cuánto más euskera utilicen, más facilidad y recursos tendrán en esa lengua.

### **Euskera: Ofrecedles referentes en euskera.**

- Actividades culturales: teatro, conciertos, festivales....
- Música, libros, revistas...
- Juegos y juguetes
- Visitar zonas donde el uso de euskera es alto.
- ...

### **Euskera: Ofrecedles euskera desde casa.**

- Utilizad el euskera que sabéis, o aprended y utilizad frases en euskera.

### **Castellano, inglés u otras lenguas que estén aprendiendo**

- Mostrad interés por el aprendizaje del castellano. Que vean que nos interesa y nos parece importante que tengan un buen nivel.
- Id a la biblioteca y buscar libros en inglés. Que nos lean en alto ese cuento. Si no lo entendemos, que nos lo cuenten o nos inventamos una versión...
- Ver los dibujos juntos y en inglés.
- Comentad noticias o situaciones donde aparecen más de un idioma: sobre personas que conocemos que saben muchos idiomas, noticias curiosas...
- Si viajáis a zonas donde se hablan otros idiomas, aprended algunas cosas básicas, mostrad interés, etcétera.

# **Haur elebidunen gurasoentzako dekalogoia**

## **Decálogo para padres y madres de niños y niñas bilingües**

**LEHEN HEZKUNTZARAKO ESKU-ORRIA**

## Zergatik dekalogo?

Gure ikasleak eleanitzak izatea nahi dugu. Horretaz gain, euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabiltzeko benetako aukerak izatea ere nahi genuke. Hau da, gure ikasleek gertukoa dutena zaindu eta maitatzea eta besteekiko ikuspegi irekia edukitzea litzateke egokiena.

Horretarako beharrezkoa da eskolatik kanpo euskararekin harreman handia izatea: euskara asko erabiltzea eta euskararekin lotuko dituzten bizipenak izatea. Euskara balio indartsuekin lotzea eta edozertarako balio duela ikustea.

Horri begira, noski, gurasoon laguntza beharrezkoa da. Dekalogoan hainbat ideia zerrendatu ditugu, gure ustez lagungarriak eta eraginkorrak izan daitezkeenak.

## ¿Qué es este decálogo?

Queremos que nuestros alumnos realmente lleguen a ser bilingües (que tengan facilidad con el euskera y con el castellano) y que en muchas relaciones utilicen euskera con naturalidad. Para ello es necesario que tengan mucha relación con el euskera fuera de la escuela: que posibilidades reales de utilizarlo, y que tengan referentes y vivencias positivas en esa lengua.

Para ello es imprescindible la ayuda de padres y madres. En este decálogo os ofrecemos algunos consejos que nos parece pueden ser útiles.

## ***Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres***

### **Haur elebidunen guraso euskaldunen dekalogo**

- 1- Nire seme-alabak eleanitzak izatearen eta euskaraz aritzeko ohitura izatearen ardura ez diot eskolari utziko. Gurasook ere lagunduko dugu norabide horretan.
- 2- Irakasleekin bilerak egiten ditugunean, hizkuntzen ikaste prozesuaren inguruan eta euskararen erabileraren inguruan interesa erakutsiko dugu. Irakasleek egiten dizkiguten ohar eta gomendioak kontuak hartuko ditugu.
- 3- Euskara aberatsa izan dezaten, etxetik euskara eskainiko diegu eta euskararekin jolastuko dugu (abestiak, ipuinak...). Euskara aberatsa eskaintzea izango da abiapuntua beste hizkuntzak ere ikasteko erraztasuna izan dezaten.
- 4- Aukera ikusten dugun guztietan eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz aukeratuko ditugu. Etxetik kanpo euskarazko harremanak eskaintzeko bide eraginkorra da. Kirolean, antzerkian edo beste edozein jardueretan euskaraz aritzeko aukera emango diegu.
- 5- Euskaraz egiteko ohiturak finkatu ditzaten, gure hizkuntza-ohiturak zainduko ditugu. Seme-alabek ikusten dutena egiten dute. Lagun euskaldunekin euskaraz egiten badugu, eredu ona eskaintzen ari gara.
- 6- Euskarazko erreferenteak eskainiko dizkiegu: musika, jostailuak, jolasak, telebista... Arlo horietan guztietan euskarak bere lekua izan dezan zainduko dugu. Euskarazko erreferenteak ere behar dituzte.
- 7- Opariak egiten dizkiegunean (Gabonetan, adibidez), euskarazko opariak ere egingo dizkiegu. Erreferenteak eskaintzeko eta euskararekin harremana zaintzeko bidea da.
- 8- Euskarazko bizipenak eskainiko dizkiegu. Etxetik zein etxetik kanpo euskararekin lotuko dituzte esperientziak behar dituzte: eskola orduz kanpoko jarduerak, antzerkiak, txotxongiloak, zinea, jaialdiak...
- 9- Ohiko egoeretatik kanpo euskaraz egiten ahaleginduko gara. Herritik kanpo ere harreman berriak euskaraz sortzen saiatuko gara. Ikusi behar dute euskararekiko jarrera aktiboa dugula eta guretzat edozein lekutan eta edozertarako balio duela.
- 10- Beste hizkuntzekiko interesa erakutsiko dut. Gaztelania eta ingelesa ondo ikastea nahi dugula ikusi behar dute, eta, horretaz gain, beste hizkuntzekiko interesa dugula. Eleaniztasunarekiko mezu positiboak emango dizkiegu.



## ***Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres***

### **Decálogo para padres y madres que no saben euskera o saben un poco**

- 1- Colaboraremos con la escuela para que nuestros/as hijos e hijas lleguen a tener facilidad con el euskera y para que en muchas relaciones tengan oportunidades reales de utilizar la lengua.
- 2- En las reuniones con profesores/as mostraremos interés por el proceso de aprendizaje de los idiomas y por el uso del euskera. Tendremos en cuenta los consejos y las recomendaciones que nos hagan los/las profesores/as.
- 3- Ofreceremos a nuestros hijos/as euskera desde casa. Si sabemos un poco intentaremos utilizar el euskera que sabemos, y si no sabemos nada, podemos aprender algunas expresiones o frases que podamos utilizar en la vida cotidiana. Les estaremos ofreciendo actitudes muy positivas hacia la lengua.
- 4- Siempre que podamos, optaremos por actividades extraescolares en euskera. Es el modo más eficaz para ofrecerles euskera fuera de la escuela. Facilitaremos que puedan utilizar euskera en actividades deportivas, teatro, etc.
- 5- Les ofreceremos referentes culturales también en euskera: música, juegos, juguetes, televisión... Cuidaremos la presencia del euskera en todo tipo de actividades.
- 6- Cuando les hagamos regalos (por ejemplo, en Navidades), cuidaremos que entre los regalos algunos sean en euskera. Les ofreceremos referentes euskaldunes.
- 7- Les ofreceremos vivencias positivas en euskera. Necesiten experiencias positivas que relaciones con el euskera tanto en casa como fuera de casa: actividades extraescolares, teatros, marionetas, festivales, cine...
- 8- En épocas vacacionales (Navidades, verano...), les ofreceremos actividades en las que puedan utilizar euskera: colonias urbanas, campamentos, espectáculos...
- 9- Por supuesto, les transmitiremos que queremos que aprendan bien castellano. Mostraremos interés y les ayudaremos en ese proceso.
- 10- Mostraremos interés por el proceso de aprendizaje del inglés e intentaremos ofrecerles situaciones donde puedan escucharlo, leerlo o utilizarlo. Pero también mostraremos interés y curiosidad por otros idiomas (que conviven en nuestro entorno, que conoceremos cuando vayamos de viaje...). Les ofreceremos actitudes positivas hacia el multilingüismo.

# ESKOLA ETA HIZKUNTZAK

## *Gurasoekin elkarlanean*

# ESCUELA E IDIOMAS

## *Con la ayuda de padres y madres*

AURRE-MATRIKULAZIO GARAIRAKO ESKU-ORRIA

## **Hizkuntzen ezagutza eta erabilera: gurasoon parte hartzea behar dugu**

- Zuen seme/alaba ikastetxe honetan matrikulatzeko asmoa duzue.
- **Ikastetxea gara**, eta ikastetxe moduan:
  - o Gure ikasleek gutxienez bi hizkuntza ofizialak ondo ikastea nahi dugu: euskara eta gaztelania.
  - o Ingelesean ere maila egoki bat lortzen lagunduko diegu.
- Horretan lan egingo dugu eta orain arteko esperientziak erakusten digu bidea egokia dela.
- Euskararen erabilera indartzea ere bada gure helburuetako bat: gure ikasleek euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabiltzea nahi genuke. Hori bilatzen dugu eta norabide horretan lan egiten dugu.
- Argi daukagu, gainera, bai hizkuntzak ikastera begira baita euskararen erabilera lantzera begira ere gurasoon laguntza behar dugula. Eragin handiena zuek duzue.
- Horregatik, eskolako guraso izaten zareten momentutik, hainbat aholku eta proposamen egingo dizkizuegu norabide horretan.
- Parte hartzeko prest?

## **Aprendizaje y uso de los idiomas: necesitamos la ayuda de padres y madres**

- Tenéis la intención de matricular a vuestro hijo/a en la escuela.
- Tened en cuenta que, para empezar, **somos una escuela**, y como escuela:
  - o Queremos que nuestros/as alumnos/as aprendan bien las dos lenguas oficiales: euskera y castellano.
  - o Queremos que también adquieran un buen nivel de inglés.
- Nos esforzaremos para conseguir esos objetivos, y la experiencia nos demuestra que el camino es adecuado.
- Otro de nuestros objetivos es fomentar el uso del euskera: queremos que nuestros/as alumnos/as usen mucho el euskera y puedan utilizarlo en diferentes situaciones y relaciones.
- Tenemos muy claro que para lograr los objetivos de conocimiento de idiomas y uso del euskera necesitamos la ayuda de las familias.
- Por ello, desde el momento en que os convirtáis padres y madres de la escuela, empezaremos a ofreceros consejos e ideas para que participéis y nos ayudéis a conseguir los objetivos lingüísticos.
- ¿Dispuesto a participar?

*(Behar bada txertatu daiteke zein diren hizkuntza helburuak: euskarari, gaztelaniari eta ingelesari dagokionez zein mailalara iritsi nahi den. Trataera zein izango den ere jarri daiteke: euskara noiz eta nola lantzen den, gaztelaniarekin noiz hasiko diren eta ingelesarekin ere noiz eta nola hasiko diren eta nola garatuko den).*

## **Razones para elegir una escolarización en euskera para mis hijos e hijas**

*Consejos para padres y madres que han llegado hace poco y deben matricular a sus hijos e hijas en un centro escolar*

## **Seme-alabentzat euskarazko ereduak aukeratzeko arrazoiak**

*Etorri berriak diren eta seme-alabak eskolatu behar dituzten gurasoentzako aholkuak.*

## **Razones para elegir una escolarización en euskera**

Para vuestros hijos e hijas será bueno que aprendan euskera.

Para empezar, será una lengua que se sumará a las otras que están aprendiendo

Por otra parte, les ayudará a integrarse en la sociedad vasca. Les ayudará a conocer, comprender y vivir también la cultura en euskera.

Además, en un futuro les puede ayudar en las opciones de trabajo. Aprender lenguas ayuda en las opciones laborales, y en el País Vasco el euskera es necesario en muchos trabajos. El futuro puede ser mejor si aprenden euskera.

Es más, saber dos lenguas tan diferentes como el español y el euskera, además del inglés que les ofrece la escuela, es una base magnífica para adaptarse y aprender otras lenguas. Los idiomas se ayudan unos a otros, y, por lo tanto, las personas que saben más de uno tienen más facilidad para aprender otros idiomas.

Si dentro de algún tiempo decidís ir a vivir a otra comunidad o país, no tendrán ningún problema en adaptarse. No tendrán ninguna dificultad para adaptarse al aprendizaje en otra de las lenguas que conocen.

## Las lenguas de casa

¿Qué lenguas habláis en vuestra casa?

Poco a poco más lenguas entrarán en vuestra casa: español, euskera, inglés... Si no es ahora será cuando vuestros hijos e hijas empiecen a aprenderlas. Vendrán con libros, contando lo que aprenden...

Vuestros/as hijos/as serán plurilingües y esas lenguas entrarán en vuestra casa.

Nuestro consejo: Transmitid vuestra lengua y una actitud positiva hacia las que están aprendiendo.

## Las lenguas de la calle

En Euskadi hoy día se hablan cerca de 100 idiomas.

Los idiomas oficiales son dos: el euskera y el español.

El euskera lo saben y utilizan muchas personas, pero el idioma mayoritario es el español.

Los/las niños/as aprenden los idiomas desde el uso. El español, al ser la lengua mayoritaria, lo utilizarán en muchas situaciones y relaciones. Por lo tanto, aprenderán bien español.

La sociedad vasca lleva muchos años fomentando el bilingüismo e intentando que la lengua más desfavorecida, el euskera, pueda desarrollar y llegar a cumplir las mismas funciones que el español. Vuestros hijos e hijas formarán parte de esa sociedad.

## **Las lenguas de la escuela**

La escuela ayudará a que vuestros/as hijos/as aprendan más de una lengua.

Podemos optar por varios modelos lingüísticos. La enseñanza en euskera (modelo D) es el modelo más demandado y cuenta con una experiencia de más de 30 años.

El modelo D es el que más euskera les ofrece. Todo será en euskera menos las materias de inglés y de español. Es el modelo que más les ayudará a dominar bien el euskera al ser donde más euskera utilizarán.

Al terminar la enseñanza obligatoria (16 años): Tendrán un buen nivel de euskera y de español, y la base de inglés será buena.

## **Les ayudarán en la escuela**

Para poder aprender euskera y en euskera, tendrán la ayuda de la escuela.

Si habéis llegado hace poco y vuestro hijo/a tiene más de 4 años, la escuela dispone de profesores/as que le ayudarán a aprender euskera y adaptarse a la enseñanza de la Comunidad Autónoma Vasca.

En el caso de niños/as más pequeños/as, no tendrán ninguna dificultad para adaptarse al proceso de enseñanza.

Ante cualquier duda o dificultad, hablad con los/as profesores/as, ellos/as os aconsejarán y os ayudarán.



# **Gabonetan ere Euskara oparitu**

## **Regálales euskera también en Navidades**

**GABON GARAIA HURBILTZEN DENERAKO ESKU-ORRIA**

*Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres*

*Euskaraz oparitzera begira, ondoko web orri honetan informazio asko duzue:*

Hainbat produkturen erreferentziak agertzen dira ondoko web orri honetan: [www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus)

---

*Para hacerles regalos en euskera, en esta página web encontraréis mucha información:*

En esta página web encontraréis muchas referencias de productos en euskera: [www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus)

## **Euskara oparitu.**

Gure seme-alabek euskararekin harreman handia eta positiboa eduki dezaten ahalegindu behar dugu. Gaztelaniarekin ziur horrela izango dela: produktuak asko dira (jostailuak, bideoak...), erreferenteak asko dira (musikariak, aktoreak, kirolariak...), eta abar.

Euskarak ere baditu produktuak eta erreferenteak. Gero eta gehiago. Baina batzuetan zailagoa izaten da horiek ezagutzea edo horiek eskura izatea.

Benetan da garrantzitsua gure seme-alabentzat euskararekin harreman handia eta positiboa edukitzea: gauza positibo eta erakargarriekin lotzea lortu behar dugu.

Lan horretan txikiak direnean hasi behar dugu. Euskararekiko aktiboak izan behar dugu eta aukera dugunean euskarazko produktuak hautatu.

Ez dizuegu proposatzen euskaraz soilik oparitzea. Arlo hori zaintzea, eta euskaraz oparitzeko aukera duzuenean horren alde egitea baizik.

---

## **Regálales euskera.**

Es importante que nuestros hijos e hijas tengan una buena relación con el euskera. Con el castellano seguro que será positiva: la oferta de productos en castellano es muy grande (juguetes, videos...), los referentes son muchos (musicales, películas...), etc.

También se ofertan muchos productos en euskera. Cada vez más. Pero muchas veces es más difícil conocer esos productos y llegar a ellos.

La relación que tengan nuestros hijos e hijas con el euskera tiene una influencia directa en las actitudes y el uso. Teniendo en cuenta que muchos de los padres y madres de la escuela transmitís desde casa castellano, y que en el entorno el idioma mayoritario es el castellano, tenemos que ser activos hacia el euskera y conseguir que identifiquen el euskera con cosas positivas y atractivas.

Cuanto antes empecemos a trabajar esa relación, mucho mejor. Regalar productos en euskera es una herramienta que nos puede ayudar.

Por supuesto, no os proponemos que les regaléis sólo productos en euskera, sino que lo tengáis en cuenta y que cuando podáis elegir lo elijáis en euskera.

**Oporretan ere eskaini euskara.  
Hainbat aukera dituzue!**

**Ofrécedles euskera también en  
verano.  
¡Lo podéis hacer de muchas  
maneras!**

**OPOR GARAIA HURBILTZEN DENERAKO ESKU-ORRIA**

## **Udako oportretan ere eskaini euskara. Behar dute.**

Ikastetxearen helburuetako bat ikasleak benetako elebidunak izatera iristea da: euskaraz eta gaztelaniaz, biak, ondo eta erraztasunez erabiltzeko gai izatera iristea. Hori ona dela argi daukagu.

Hori eman dadin, bi hizkuntzen erabilerak handia izan behar du. Hizkuntzen erabilera handia den neurrian, ondo ikasiko dituzte.

Gaztelania nagusi den inguru batean bizi garenez, etxetik eta etxetik kanpoko ahalik eta bide gehienetatik euskara eskaintzen ahalegindu behar dugu.

Udako oportrei begira hainbat proposamen egiten dizkizuegu baliagarriak izango zaizkizuelakoan.

Ondo pasa oportretan!

---

## **Ofrécedles euskera también en verano. Es importante para ellos/as.**

Uno de los objetivos de la escuela es que nuestros alumnos/as sean realmente bilingües: que dominen bien tanto el euskera como el castellano.

Para ello es importante que utilicen suficientemente los dos idiomas. Si el uso en cada uno de los idiomas es alto, y la relación que tienen con los idiomas es positiva, llegarán a dominar bien los dos idiomas y no tendrán ninguna dificultad para poder elegir uno u otro.

Viviendo en una zona donde el castellano es mayoritario, y teniendo en cuenta que desde casa muchas de las familias sobre todo transmitís castellano, es importante ofrecerles euskera fuera de la escuela.

De cara al verano os animamos a que les ofrezcáis todo el euskera que podáis. Y para ello os ofrecemos algunos recursos que pueden ser útiles.

Ondo pasa oportretan!

## Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres

### Zer egin etxean?

Etxean euskara entzutea eta euskara ikustea komeni zaie. Hemen hainbat ideia:

- **Telebistako programak:** Euskarazko marrazki bizidun asko eskaintzen ditu ETB3k. Ziur beraien gustuko programak ere badaudela.
- **Bideoak:** Marrazki bizidunak edo pelikularen bat hartzen baduzue DVDan ikusteko, begiratu euskaraz zein aukera dituzuen. Web orri honetan hainbat aukera agertzen dira: [www.marrazkiak.euskal-encodings.com](http://www.marrazkiak.euskal-encodings.com)
- **Ipuinak:** Ipuinak erosten badituzue edo liburutegitik hartzen badituzue euskarari ere leku handia egin. Ipuinen aukera handia dago euskaraz ere.
- **Jostailuak:** Etxean jolasteko jostailuren bat hartu nahi baduzue. Euskaraz zer dagoen ere begiratu, agian zuen gustukoa aurkituko duzue. Hainbat aukera hemen: [www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus)

### ¿Qué hacer desde casa?

Es conveniente que nuestros hijos e hijas vean y escuchen euskera en casa. Os ofrecemos algunas ideas:

- **Televisión:** ETB3 emite muchos dibujos animados. Mirad de vez en cuando qué están emitiendo, seguro que muchos les gustan a nuestros hijos e hijas.
- **Videos:** Si vais a coger alguna película en DVD, mirad también qué opciones tenéis en euskera. Algunas opciones las podéis encontrar en esta página web: [www.marrazkiak.euskal-encodings.com](http://www.marrazkiak.euskal-encodings.com)
- **Juguetes:** Si vais a regalarles algún juguete, mirad que opciones tenéis en euskera. Es muy posible que encontréis algo de vuestro gusto: [www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus)
- **Frases en euskera:** Una buena manera de que escuchen euskera en casa es utilizando frases de la vida cotidiana en euskera. Aunque vosotros/as no sepáis euskera, sí que podéis introducir algunas frases. Por ejemplo:

Egun on, Ondo lo egin duzu?	Buenos días. ¿Has dormido bien?
Joango gara kalera?	¿Vamos a la calle?
Eguraldi ona dago. Goazen hondartzara!	Hace buen tiempo. ¡Vamos a la playa!
Egarri zaude? Ura nahi duzu?	¿Tienes sed? ¿Quieres agua?
Ederki pasa dugu.	Lo hemos pasado muy bien.

## *Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres*

### **Zer egin etxetik kanpo?**

#### *Herrian bertan*

**Udaleku Irekiak** benetan aproposak dira. Hurrek ondo pasako dute eta lagunartean euskara erabiltzeko aukera izango dute.

#### Herritik kanpo

Jarduera berezi edo eta gidatu asko dira gaur egun Euskal Herri osoan zehar. Hona horietako batzuk. Horietara joaten bazarete, euskarazko bisiten hautua egin:

- Topic, txotxongiloen etxea. Tolosa (Gipuzkoa). [www.topictolosa.com](http://www.topictolosa.com)
- Izenaduba basoa, parke mitologikoa. Mungia (Bizkaia). [izenaduba.com](http://izenaduba.com)
- Mendukilo kobazuloak. Astitz-Lekunberri (Nafarroa). [www.mendukilo.com](http://www.mendukilo.com)
- Arrikruz kobazuloa. Oñati (Gipuzkoa). [www.oinati.org/natura-kirola/arrikruz](http://www.oinati.org/natura-kirola/arrikruz)
- Lurrun-trena. Lasao-Azpeitia (Gipuzkoa). [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)
- Txindokiko Itzala abentura parkea. Abaltzisketa (Gipuzkoa). [info@txindokikoitzala.com](mailto:info@txindokikoitzala.com)

#### **Bestelakoak**

Herrian eta inguruko herrietan antolatzen diren ekitaldietara adi egon: Haurrentzako antzerkiak, pailazoak, musika jaialdiak eta abar. Udako oporretan hainbat ekitaldi antolatzen dira haurrentzat.

## ***Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres***

### ***¿Qué hacer fuera de casa?***

#### En la localidad y alrededores

Las Colonias Urbanas son muy adecuadas. Los niños/as lo pasan bien y tienen la oportunidad de utilizar euskera con los amigos/as.

#### Fuera de nuestro pueblo/ciudad

Si vais a hacer alguna excursión, tenéis muchas actividades donde podéis elegir que el dinamizador o guía hable en euskera (aunque vosotros no lo entendáis):

- *Topic*, la casa de las marionetas. Tolosa (Gipuzkoa). [www.topictolosa.com](http://www.topictolosa.com)
- Parque mitológico *Izenaduba basoa*. Mungia (Bizkaia). [izenaduba.com](http://izenaduba.com)
- *Cuevas de Mendukilo*. Astiz-Lekunberri (Nafarroa). [www.mendukilo.com](http://www.mendukilo.com)
- *Cuevas de Arrikruz*. Oñati (Gipuzkoa). [www.oinati.org/natura-kirola/arrikruz](http://www.oinati.org/natura-kirola/arrikruz)
- *Tren de vapor*. Lasao-Azpeitia (Gipuzkoa). [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)
- Parque de aventura *Txindokiko Itzala*. Abaltzisketa (Gipuzkoa). [info@txindokikoitzala.com](mailto:info@txindokikoitzala.com)

#### Otras opciones

Estar atentos a las actividades o espectáculos que se organicen en los alrededores: payasos, teatro, música... En verano se organizan muchas actividades para niños/as.



**Nola lagundu eskolako lanekin?**

**¿Cómo ayudarles en las tareas  
escolares si no sabemos  
euskera?**

## Gurasoen ohiko kezka / Dudas habituales de padres y madres

### **Kontuan izan...**

Zuen seme-alabak laster eskolako lanekin hasiko dira. Guraso askok kezka izaten dituzte gai horren inguruan. Horri buruzko aholku batzuk ematen dizkizuegu esku-orri honetan.

Gauza bat da eskolako lanekin laguntzea eta beste bat eskolako lanak guk egitea. Eskolako lanak beraiek egin behar dituzte. Eskolan ikasi duten zerbait da eta landu egin behar dute.

Garrantzitsuena ez da eskolako lanak beti ondo egitea, ikasketekiko interesa izatea, ahalegintzea eta eskolako lanekiko ardura hartzea baizik. Guraso moduan norabide horretan lagundu behar genieke: ikasteko ohiturak eta motibazioak.

### **Tened en cuenta...**

Vuestros hijos e hijas pronto empezarán con las tareas escolares. Muchos padres y madres que no sabéis euskera mostráis preocupación al no tener muy claro cómo les podréis ayudar. En este tríptico os damos algunos consejos.

Una cosa es ayudarles con las tareas y otra cosa es hacerles los deberes. Las tareas escolares las tienen que hacer los niños/as. Es una cosa que han aprendido en clase y tienen que practicar.

Lo importante no es que lleven a la escuela las tareas siempre bien hechas, sino que se esfuercen, muestren interés y se responsabilicen de sus tareas. Como padres y madres les deberíamos ayudar en esa dirección: hábitos de estudio y motivaciones.

## ***Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres***

### **Ikasteko ohiturak eta motibazioak**

Seme-alabei ikasteko ohiturekin lagundu behar diegu. Horretarako, garrantzitsuak dira oinarri hauek:

- Errutinak: noiz egingo dituzten eskolako lanak.
- Leku egoki bat eskaintzea: beti leku bera izan dadila eta ez dezatela piztutako telebistarik eduki inguruan.
- Antolatzen ikastea: lehentasunak jartzea, denborak neurtzea...

Motibazioen kasuan, batez ere ikasketekiko erakusten duten interesa eta eskolako lanekin egiten duten ahalegina hartu behar dugu kontuan. Emaitzak ez dira horren garrantzitsuak. Emaitzek gora beherak izan ditzakete, baina motibazioak lantzen baditugu ikaste prozesua ondo joateko oinarri ezin hobea izango da.

### **Hábitos de estudio y motivaciones**

Tenemos que ayudar a nuestros hijos e hijas para que desarrollen hábitos de estudio. Para ello:

- Fijar y acordar con ellos las rutinas: cuándo harán las tareas.
- Ofrecerles un lugar de estudio: que siempre sea el mismo y que no tengan obstáculos como una televisión encendida.
- Ayudarles a que aprendan a organizar las tareas: priorizar, tiempos...

De cara a potenciar la motivación, tenemos que intentar valorar sobre todo el interés que ponen y el esfuerzo que hacen con las tareas. Los resultados pueden variar, pero nos interesa trabajar las motivaciones para garantizar que el proceso de aprendizaje sea adecuado.

## *Gurasoentzako proposamenak / Propuestas para padres y madres*

### **Algunos consejos**

Si queremos ayudarles con tareas concretas lo primero es preguntarles qué es lo que tienen que hacer.

Según lo que tengan que hacer, es muy posible que no sea necesario que nosotros entendamos todo el texto.

Normalmente, en las tareas escolares **les podremos ayudar en tres temas: comprensión, comunicación o memorización.**

Para ayudarles con la comprensión, podemos utilizar estrategias como: pedir que nos lo explique en castellano, diccionario, traductores de internet, dar las explicaciones en castellano, buscar temas relacionados y trabajar esos temas...

Para ayudarles con la comunicación: ayudarles a desarrollar argumentos mediante preguntas, trabajar temas relacionados, trabajar el mismo tema desde diferentes puntos de vista...

Para ayudarles con la memorización: tener nosotros el texto y que nos digan lo que pone, asociaciones, visualizaciones...

No saber euskera es una limitación a la hora de ayudarles con las tareas Pero sí les podemos ayudar mucho y muy bien.

En el caso de tareas en las que les queramos ayudar y no lo conseguimos, **hacer un seguimiento del tema.** Esperar a que lo corrijan en clase y cuando lo hayan hecho, repasarlo en casa, proponerles ejercicios parecidos...

Tened muy claro que aunque no está mal ayudarles con tareas concretas, lo realmente importante son los hábitos de estudio y las motivaciones. Deberíamos centrarnos y trabajar más esos temas que ayudarles en tareas concretas.

Podéis encontrar más información en: [www.emangiltza.eus/herramientas](http://www.emangiltza.eus/herramientas)

# Gurasoentzako webgune baliagarriak

Euskara eskaintzera begira / Para ofrecerles euskera

Gaia – Tema	Wegunea – Página web
Euskarazko produktuak / Productos en euskera	<a href="http://www.katalogoa.eus">www.katalogoa.eus</a>
Marrazki bizidunak / Dibujos y películas	<a href="http://www.marrazkiak.euskal-encodings.com">www.marrazkiak.euskal-encodings.com</a>
Entzuteko ipuinak / Cuentos para escuchar	<a href="http://www.etxegiroan.com">www.etxegiroan.com</a>
Entzuteko ipuinak / Cuentos para escuchar	Mobileko aplikazioa / Aplicación de móvil: Ipuintxo
Entzuteko ipuinak / Cuentos para escuchar	<a href="http://www.synbaloo.com/mix/ipuinklasikoak">www.synbaloo.com/mix/ipuinklasikoak</a>
Entzuteko ipuinak / Cuentos para escuchar	<a href="http://www.solasegitekoipuinak.net">www.solasegitekoipuinak.net</a>
Karaokea	<a href="http://www.txantxangorria.eus">www.txantxangorria.eus</a>
Karaokea	<a href="http://www.kantuan.net">www.kantuan.net</a>
Euskarazko jolasak / Juegos en euskera	<a href="http://www.aisia.net/txantxariak">www.aisia.net/txantxariak</a>
Ipuinak, abestiak... / Cuentos, canciones...	<a href="http://www.txiki.net">www.txiki.net</a>
Ipuinak, abestiak... / Cuentos, canciones...	<a href="http://www.childtopia.com">www.childtopia.com</a>
Euskarazko musika / Música en euskera	<a href="http://www.badok.info">www.badok.info</a>
Irratia euskaraz / Radio en euskera	<a href="http://www.eitb.eus/eu/gaztea">www.eitb.eus/eu/gaztea</a>
Aldizkaria / Revista	<a href="http://www.irrienlagunak.eus">www.irrienlagunak.eus</a>

Gurasoentzako tresnak / Herramientas para padres y madres

Gaia – Tema	Webgunea – Página web
Hainbat aholku / Consejos	<a href="http://www.emangiltza.eus">www.emangiltza.eus</a>
Eskolako lanak / Tareas escolares	<a href="http://www.emangiltza.eus/herramientas">www.emangiltza.eus/herramientas</a>
Hiztegiak / Diccionarios	<a href="http://www.hiztegia.net">www.hiztegia.net</a>
Hiztegi eleanitza /Diccionario multilingüe	<a href="http://www.hizkimizki.com">www.hizkimizki.com</a>
Wikipedia	<a href="http://www.wikipedia.org">www.wikipedia.org</a>
	Vikidia.org (wikipedia en euskera para niños)
Itzultzailea / Traductor	<a href="http://translate.google.es">translate.google.es</a>
Itzultzailea / Traductor	<a href="http://www.itzultzailea.euskadi.net">www.itzultzailea.euskadi.net</a>

# Gurasoen bilerarako gidoi adibidea

Urrian gurasoekin bilera egiten da. Bilera horretan, 3-4 minutu inguru hartuko ditugu ondorengo egiteko:

Gaian kokatzea
----------------

- Ikastetxearen oinarrietako bat hizkuntza da, euskara. Horrek zera esan nahi du:
  - o Komunikazio hizkuntza euskara dela.
  - o Ikasleak bi hizkuntzak ondo ikastea nahi dugula (euskara eta gaztelania) eta hirugarren hizkuntzan ere oinarri on bat emateko ahalegina egingo dela (ingelesa).
  - o Helburu horretara begira gaur egun D ereduak eskaintzen dituela aukera egokienak.
- Ikastetxea moduan, gainera:
  - o Euskararen erabilera sustatzen dugula
  - o Gure ikasleek euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabiltzea nahi genukeela.
- Ikastetxeak hainbat helburu ditu hizkuntzen ezagutzari eta erabilerari dagokionez.
- Gurasoek ere izaten dituzue hainbat kezka gai horien inguruan.
- Gai garrantzitsuak direnez, horiei buruz aritzea erabaki dugu. Ikasturtean zehar (baita hurrengo ikasturteetan ere), ikastetxearen ikuspegia azalduko dizuegu, hainbat proposamen egin eta zuen kezkek eta zalantzak argitzen ere ahaleginduko gara.

### Mezu nagusienak ematea

- Adinari dagokion esku-orria banatuko diegu eta puntuz puntu aipatuko dugu.
- Bertan agertzen diren mezuak ematerakoan, zenbait datu ematea ere egokia izan daiteke:
  - Hizkuntzen ikaste prozesua: Erabilera, ezagutza eta motibazioa.
  - Eskolaren muga: %15
- Datu hauek ematerakoan power pointa edo taula horien irudia erabil ditzakegu.
- Ideia nagusiak HH:
  - Eleaniztasuna ona dela uste dugu. Elebitasunetik abiatuko gara.
  - Eskolak mugak ditu. Guraso erdaldunak euskararekiko aktiboak izatea komeni da.
  - Etxetik ahalik eta euskara gehien eskaintzea eta euskararekin duten harremana zaintzea komeni zaie. Gauza txikiak zainduz egiten da. Atsegina ere bada.
- Ideia nagusiak LH:
  - Ikastetxeko ikasleek euskara eta gaztelania maila egoki bat lortzen dituzte. Baina, etxeko hizkuntza gaztelania den kasuetan, gaztelaniaz hitz egiterakoan erraztasun handia duten bezala, euskararekin ez dute erraztasun bera izaten. baliabide gutxiago izaten dituzte kaleko eta lagunarteko harremanetan.
  - Etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleentzat benetan garrantzitsua da eskola orduetatik kanpo euskara erabiltzeko aukera izatea. Zenbat eta gehiago, hobeto. Horrekin euskaraz aritzeko erraztasuna eta aberastasuna lortuko ditu. Eta elebitasun orekatura hurbiltzeko, hori behar dute.
  - Etxeko hizkuntza euskara den kasuetan ere, lagunartean euskarazko harremanak izatea eta finkatzea nahi badugu, gune babestuak behar dituzte.

### Oharra

Espero ez ditugun iritziak eta kezak agertzen hasten badira, eta irakasleok ez badituzue mezuak argi, gaia lantzen ari zaretela aipatu eta ekarriko dituzuela berriz ere guraso bileretara. Interesa eta kezka agertzea modu positiboan baloratu, eta ez da negatiboa erantzun guztiak ez edukitzea. Are gehiago, zuentzat ere hori argitzea baliagarria dela esatea ona da.



# Plangintza adibidea

Ikastetxe batean gurasoei eman nahi zaizkien mezuak antolatzea eta plangintza moduan garatzea oso egokia da. Hemen aurkezten dizuegu adibide bat.

Plangintza hauen oinarrian ideia hau dago:

- Mezuak une eta modu ezberdinetara eman ditzakegu. Aurre-matrikulaziotik hasi eta ikastetxeko ibilbidea amaitu arte, taldekako bileretan eta banakoetan, informazioa etxera bidaliz edo aurrez aurre, eta abar.
- Une batean gaia patxadaz lantzea oso egokia izan daiteke, baina plangintza honetan tarte laburrak baina maiztasun batekin izatea proposatzen dugu. Bi bideak egokiak eta osagarriak dira.

Beraz, gurasoei hainbat mezu emango zaizkie ikasturtean zehar. Horretarako esku-orriak prest daude. Hauek dira momentuak eta esku-orriak:

	HH2	HH 3	HH4	HH5	LH1	LH3
Aurre-matrikulazioa						
<b>Irailean gela bileretan</b>	Bizi euskara	Jolastu euskararekin	Lagunartean euskaraz?	Euskara eta bizipenak	Lagunduko diguzue?	Dekalogoak
<b>Azaroan banakako bileretan</b>	Gabonetan ere oparitu euskara					
<b>Maiatzean banakako bileretan</b>	Oporretan ere eskaini euskara					
<i>Bereziak: Nola lagundu eskolako lanekin? + Etorri berrientzat aholkuak</i>						

- Ikasturte hasieran irakasleei oinarrien dokumentua irakurtzeko eskatuko zaie: mezu nagusiak, uneak...
- Une bakoitzaren aurretik irakasleek esku-orriak ikusi behar dituzte eta egokiak diren baloratu.
- Une bakoitzaren ondoren irakasleen bilera batean balorazio bat egingo da.